

Soldaduzkari agur!

TXILLARDEGI



GURE gaztaroan, baita ondoko urteotan ere eta gaur arte, 'soldaduzka' egin beharrek erdibitzen zuen eskaldun gazteen biziera. Hogei urte bete, eta... «a la mili».

Zertara? Denek egiten zieten galdera bera bai beren buruari eta bai elkarki. Gure aitonek eta arbasoek soldaduzkari egiten ez zutela bagenekien. Adinik onenean, «de frente, hal!», eta gainerakoetan, hilabete osoak galdu beharrek, sutu egiten gintuen. Astotu beharra somatzen genuen egintzan hartan. Besterik ezer gutxi, eta onik bat ere ez.

Nik neuk, adibidez, bi uda bota nituen zarkarretara Zamorako Monte-la-Reina zeritzon kanpamentuan. Eta, besteak beste, ospitalizata egotea zer den dastatu nuen, 'marxia' zentzugabe haietako batean jasandako bustialdiak erakarri zidan pulmonia zela-ta.

Mandoetatik zetorkigun fazismoak, espainiarkean blai eginda, ez gintuen areago hurbildu. Eta Ferrol del Caudillon 'alférez de complemento' gisa galdutako sei hilabeteak ere, denbora gaitz huts gertatu zitzaizkidan.

Baina soldaduzka 'sakratua' zen orduan, ikutu ezina, ohore iturri gaitza omen...

Belgikako Gobernuak erabaki historiko horietako bat hartu du joan den 9an: «la supresion définitive du service militaire dans le royaume à compter du 1er mars». 'Mili' fatua kito Belgikara, hitz batez, Martxoaren lelik aurrera.

Belgikako Armada (48.000) profesionala izango da hemendik aurrera. Belgikar gazteek ez dute jadanik soldaduzka egin behar.

Berri on bat inhumisozentzat, anti-militarista guzientzat; eta oso berri txarra fatxa mota guzientzat.

Javier Iruretagoiena

JOXE MARI OSTOLAZA



JABO. Irungo Real Uniooneko Jabe. Atezaino lan ederrak ematen zizkiguna junionretan. Gipuzkoako onenetsuetakoa eta jokalarri garaia amaitu zitzaionean entrenatzeari ekin zion. Oraindik gogoan dut Sestaoko Riverrekin bigarren mailan eginkin denboraldia.

Produktzio antolatzaileak, zehatza behar du. Taldeko bakoitzak bere lan propioa eta honen kokapena taldearenaren barnean ezagutu behar du. Eta menderatu. Orokorra eta berezia. Norbera eta taldea. Zehatzasunez ezagutu behar da sistema. Eta entrenatzaileak hori garrantzitu behar du, sistematizazioa eta antolakuntza. Eta alde horretatik, Jabe garrantia da, bere ekipoek bere ezaugarri propioz beterik baitaude. Erreleboak, permutak, koberturak... dena zehaztaturik. Bere ekipoek identifikatzen dute Jabe. Baina zelaira ez, baizik eta beren buruei bakarrik begira egiten diren kazetarietara, alferrik da. Jai dago.

Jabe oportunitatea eta oportunismoa bereizten duen entrenatzaile bakarrenetakoa da. Galdetu bestela Jesus Gil y Gil Atletico de Madrideko jabeari.

Bainan horrek ez du garrantzi handirik, Bilboko Athletika berezia baita. Eta ingurua ere bai, noski. Handiak. Txanpain botelien ura ur botelien txapaina baino nahiago izaten duten kazetariak. Zalegoaren berezko joera indaritzen artistak ditugu, eta Jabe Lezamatik desterratu nahi izateraino iritsi dira. Eta pankarta, barniza. Aukera, Logroño eta Oviedo. Eskertzekoa. Baina Lezama ez.

Jabe, izen profesionala aukeratzearren tropatu egiten zen. Athletika entrenatzekeo egokiagoa Irugoiena. Edo eta Iruegi. Xabier. Eia euskaraz espainol azentoz baino, espainolez ingeles edo aleman look-az mintzatzea hobe. Eta honunntza etorri aintzin taldeaz baino, txutxumutxuka katusukalde lez aritzen diren kazetarietza arduratu izan balitz, orain pankartarik ez.

Badakik Jabe, urrutiko intxaurrek...

Enlata. Kudeatzaile ona...

Horra beraz nun Baionako erregeak printzeari utzi dion bere aukia. Zein kudeatzaile edo gestiolari ona galitzen dugun: hori da egun hauetan Grenet-i egin despedidako laudorioetan entzuten den goraiapamen nagusia.

Hori da Grenet-ek bere bizi publiko osoan zaindu eta hazi duen sineste edo ustekeria: ez zuela politikarik egiten, hiriarren kudeantza edo gestioa zuela bere axola bakarra. Mito hutsa, ez baitu egundaino kontrarioa baizik egin. Bere helburu bakarra



GALTON ANAIAK. — eta oraindik anaiak napusia falta da. IDIGORAS Y PACHI/EL MUNDO

ez baita hiriarren kudeatzea izan, bainan bai politikakeria bere tokia eta boterea zaintzeko. Bere hiriarren den mendreneko axolarik izan balu, ez zituen 36

urteak auzapezgoan hartu dituen erabakiak hartuko. Hiriarri hoinbeste gosta zaizkionak. —Merkatu estalia, 1962-an erakia. Ezin onetsizko arkitektura

petioa, bainan ere hiriko merkatu tokizat ezin sinetsizko astakeria: iluna, tristea, den guttieneo konbibilatierik gabekoa.

—ZUPa, urbanizazio astakeriarik haundiena, Baionako gunerik ederrenean. Ordukotzat denek utzia zuten hirigintza mota ezin sinetsia. 20 urteren buruan dena berri behar izan dena, edertasun, bizi goxotasun, jendetarrekotasun, arima poxi bat emaitera entseiatzeko.

—Gaztelu Berria, urteak eta urteak omen negoziatu ondano, armadoti 3 miliar libera xaharrez gutxi pagatu zitzaiona.

—Harrigarriena, onetsgaitzena: 30 urte hontan hiriarren despopulazioa.

SAR HITZA

ZUZENDARIARI

Gezurti anonimoak

Hil honen 16an halamoduzko artikulu bat argitaratu zuen 'Deia' egunkariak, Patxi Uriarte goitiazaz izenpeturik, HBren Donostiako egoitzan hilaren 11n gertatutakoan aitzakian. Artikulu osoa zen grina gaizto idatzia, erdikako egiez eta uste ustelez bete.

Hona hemen artikulu haren bigarren parrafoa, osorik eta jatorrizko hizkuntzan emana: «Se equivocan —HBkoak— en los dos primeros objetivos. Primero con Alberto Garcia (antes Garcia) periodista de Radio Popular. Hermano de Josserra Garcia (sic), aquel al que la dirección de KAS vetó para dirigir EGUNKARIA. Lo confundieron con unertzaina. ¡Y eso que es amigo de Mariano Ferrer!».

Ez da hau parrafo horri darion pozoi erre-txinduren azterketa egiteko lekua. Baina EGUNKARIA ez zipritzindu nahi duenez, esan dezadan behintzat argi eta garbi: ez da egia hor diotena. Argi eta garbiago: gezurra da, gezur borobila.

EGUNKARIAren zuzendari izateko aukera eskaini zitzaidan euskarazko egunkariaren artean amets hutsa zelarik. Eta nik dakit, eta frogaz dezentek, azkenik, eta ez burua dezente nekatu gabe, nire erabakia izan zela kargua ez hartzea. Erabakia ez zitzaidan samurra gertatu. Batetik, ohore handitza hartu nuelako. Bigarrenik, EGUNKARIAko arduradunek presioibide guztiak erabili zituztelako zuzendaritza har nezan. Non ote zegoen garai hartan gure baztermahasle mozorrua? Seguruenik, EGUNKARIAK argirik ikus ez zezan nahi zuten artean, ezkutuan orduan ere, eta bazterrek nahasten, orain bezala.

Garbi gera bedi, beraz: nik erabaki nuen EGUNKARIAko zuzendaritza ez hartzea. Eta

nire aurkezpena egiten hasita, ez ote zuen gure sasipatxik erreferentzia gertuagoko eta baliagorriagorik? Bere asmoa informazioa eskeintzea izan balitz esan zezakeen, adibidez: «... Josserra Garzia, ETBn zuzenean ari zela zentsuratu zuten hura», edota «... Josserra Garzia, zeinaren programa, 'Hitzetik Hortzerra', egun batetik bestera desagertu baitzen, azalpen askorik gabe»...

Hori guztia esan zezakeen Sasipatxik, bere helburua argi egitea izan balitz. Baina baztermahasleen lana bazterrek nahastea da, eta, Txirritak idatzia utzi zuen bezala, sasipatxi bi nahikoak dira bazter guztiak nahasteko. Gurearen kasuan, susmoa dut bi baino bat gehiago ote diren, halere, goitiazaren atzean gordeta sesio bila dabilzanak.

JOXERRA GARZIA Donostia

Lehen eta orain kalean

'Firin-faran' ikus-entzuteko parada izan genuen, baina ez ginen bakarrik izan, gure andra jatorrak ere adi egon bait ziren. «'Firin-faran-ek' zergatik telefonorik ez du ematen...?» zioten. «Berek eta bi jakoko zituen, ba, bateren batek». Izan ere, Ariztondo jaun ondarrutarak gutxietsi esan bait zuen: «Ondarruko andre deus gutxi behar zutela zaratakaleratzeko»... «Barregaria Ondarruko andrekin gertatzen dena»... eta abar.

Han, manifestapenetan, brankaz joan ohi diren andereak, andere ilezuriak, adinekoak, odol gorritz beroutako haizeez puzutzen dituzte manifestapenerako unti-ohialak maitsunezko barne indarrez. Sarritan bildurra, ikara eta ezina gainditzen dituen indar ausartxoetz.

GAIA JARRITA

Eskuz binakako finala

Oraintxe ordu gutxi falta da erabakia uzteko, noraezean ikusten dituzten jakintsu usteko. Ea aukera izaten degun joku on bat ikusteko, bi bikoteek nahiko meritu dute txapela jatzeko, baina norbaitek galdu behar du besteak irabazteko.

JOSE LUIS GORROTXATEGI



Egunkaria

Batzorde Parekidea: 72564 E / Lege Gordailua: SS 800/90



OJDK IKUSKATUTAKO HEDAPENA

Administrazio Kontseiluak Lehendakaria: MARTIN UGALDE

Kontseilu Editorialeko Zuzendaria: JOAN MARI TORREALDAI

Kontseilari Ordezkarria: IÑAKI URUA

Zuzendaria: MARTELO OTAMENDI

Gorontze: FERMIN LAZKANO

Publikatzaia: MARI JOSE SARASA

HELBIDEAK

Egoitze nagusia: Gudarian etorbidea, z/g / 20140 Andoain

☎ 30 02 22 / Erredakzio faxa: 30 02 55 / Publikatze faxa: 30 07 07

Araba: San Antonio, 20-1. lekua / 01005 Gasteiz / ☎ 23 38 72 / Faxa: 23 38 73

Nafarroa: Iratxe Monastegia, 45-13. esk. / (Irriziti dorrea) / 31011 Iruñea

☎ 17 80 78 / Faxa: 17 80 77

Bizkaia: Zabalburu Enparantza, 2-1. lekua / 48003 Bilbo

☎ 410 40 46 / Faxa: 410 37 15

Lapurd / Nafarroa Beherea / Zuberoa: Pamecau 14, 1 / 503 Posta

Kutxaila, / 64100 Baiona / ☎ 59 59 35 / Faxa: 59 25 75 11